
	EFEKTUEN KOBRANTZA Negoiaziorako, kobrantzaren kudeaketarako edo konpentsatzeko hartuta	EPIGRAFEA 1
	Egun honetatik indarrean: 2018.11.20	1. orria 3(e)tik

Zehaztapenak	Kobrantzagaratiko komisioa		
	Linearen nominalaren gaineko %	Lineako gutxienekoa	Posta
1. Deskontu-lineengatiko azterketa- eta berrikuntza-komisioa	2,00	160,00	
2. Euskarri magnetiko bidez jakinarazitako kreditu komertzialetako aurrerakin-lineetako eragiketengatiko azterketa-komisioa	2,00	160,00	
3. Arriskua gainditzeagatiko komisioa (gainditutako zenbateko handienaren gainean). Komisio hori hilean behin likidatuko da	1,00	30,00	
	Efektuaren nominalaren gaineko %	Efektuko gutxienekoa	
3. Efektuen negoziazioa edo deskontua			
Onartutako helbideratutako efektuak	0,60	7,00	(1)
Onartu gabeko helbideratutako efektuak	0,80	7,00	(1)
Helbideratu gabeko efektuak	1,20	12,00	(1)
4. Efektuak kobrantza-kudeaketan edo konpentsatzeko			
Onartutako helbideratutako efektuak	0,60	7,00	(1)
Onartu gabeko helbideratutako efektuak	0,80	7,00	(1)
Helbideratu gabeko efektuak	1,20	12,00	(1)
5. Beste kontzeptu batzuk			
Gorabeherengatiko komisioa (4. oharra)	---	10,00 finkoa	
Onarpenagatiko komisioa (6. oharra)	---	7,00 finkoa	
2. kobrantza-kudeaketagatiko komisioa (7. oharra)	1,20	12,00	(1)
Trunkagarritasun-ezagatiko komisioa (8. oharra)	---	6,00 finkoa	

(1) Kontzeptu horregatik jasotako zenbatekoa eragiketa egiteagatik sortutakoa izango da.

 kutxabank	EFEKTUEN KOBRANTZA Negoiaziorako, kobrantzaren kudeaketarako edo konpentsatzeko hartuta	EPIGRAFEA 1
	Egun honetatik indarrean: 2018.11.20	2. orria 3(e)tik

1. oharra Espainiako Bankuaren 8/1990 Zirkularrak 3a arauko 8. puntuan xedatutakoaren arabera, "Zorroko dokumentuen kobrantzan komisioak aplikatze aldera, banku-helbideratsetzat joko da ordainketa gordailu-erakundearen zabalduko kontuan zordunduta egiteko agindua. Xede horretarako, kanbio-letren helbideratzeari buruzko Kanbio-letra eta txekoen 19/1985 Legean xedatutakoari jarraiki, zirkular honen ondorioetarako, aplikagarri izango zaio kobrantza-dokumentu orori".

Tarifa horren ondorioetarako, honako hauek onartuko dira:

a) Onartutako helbideratutako efektuak.

Hurrengo b) letran definitutako helbideratze-baldintzak betetzeaz gain, igorlearen onespina edo sinadura dutenak dira, hain zuzen, onespenerako erreserbatutako tokian edo dokumentuaren beste edozein lekutan.

b) Onartu gabeko helbideratutako efektuak.

Lagapenaren unean ordainketarako, helbideratzeko erreserbatutako tituluan, gordailu-erakundearen izena, bulegoa eta efektuaren zenbatekoa zordundu beharreko kontua esleituta dutenak dira.

Hortaz, ez dira helbideratutzat hartuko "adierazpen" arruntak edo "azken edukitzaile", "bankutik pasatu...", "gomendatutako bankua..." aipamenak edo baliokideak dituzten efektuak.

2. oharra Tarifa horren ondorioetarako, merkataritzako eragiketeei edo atzeratutako salmentei dagozkien ordainagiriak edo antzeko dokumentuak (faktura-ordainagiriak, kobratzeko albaranak eta abar) onartu gabeko helbideratutako efektutzat hartuko dira eta 1. eta 2. epigrafeei lotuta geratuko dira.

Zor-agiriak onartutako helbideratutako efektutzat hartuko dira eta, era berean, 1. eta 2. epigrafeei lotuta geratuko dira.

3. oharra Epigrafe honetan jasota geratuko da obra, hornidura edo zerbitzuen exekuzioagatiko ziurtagirien kobrantza, onartutako helbideratutako efektutzat hartuta.


4. oharra Zorroko gertakariaren jakinarazpen bakoitzean, tarifaturako komisioaz gain, epea zabalduz gero, dagozkion interesak jasoko dira efektutzat.

Testuinguru horretan, gertakarizat joko da lagatzaileak aginduta efektuaren egoeraren eta datuen gainean egindako aldaketa oro Zorroan sartzean, kobrantzaren negoziaketarako edo kudeaketarako.

5. oharra Izapide bereziak dituzten efektuak:

Kanbio-letren Legeko 6. artikulua babesean igorlearen kargura interesak sortzen dituzten efektuak sarreran edo negoziazioan likidatuko dira, nominalaren arabera, 1. epigrafeari jarraiki.

Behin kobrantza eginda, erakunde kobratzaileak interesak ordainduko dizkio erakunde hartzaileari, lagatzaileari ordaintzeko 5. epigrafeari dagokion transferentziengatiko komisioa kenduta.

 kutxabank	EFEKTUEN KOBRANTZA Negoiaziorako, kobrantzaren kudeaketarako edo konpentsatzeko hartuta	EPIGRAFEA 1
	Egun honetatik indarrean: 2018.11.20	3. orria 3(e)tik

6. oharra Onespen-kudeaketa: Komisio hori kobratuko da onespena bezeroak eskatzen duenean.

Komisio hori ez da egokia izango kudeaketa inposatutakoa denean 1985eko uztailaren 16ko Kanbio-letra eta txeeen 19/1985 Legeak xedatutakoaren arabera.

7. oharra Kanbio-letren legeko 44. artikulua xedatutakoaren arabera kobrantza-kudeaketa bat baino gehiago egin behar den efektuetan, likidazio osagarria egingo da lagatzailearen kargura:

- . egindako kudeaketak adina egindako kudeaketa-komisiogatik
- . efektuan adierazitako mugaegunetik ordainketa-eguna arteko interesengatik.

8. oharra Komisio hori jasoko da bezeroak trunkatze-sistemen bidez trunka daitezkeen efektuen aurkezpen fisikoa eskatzen duenean, Kanbio-letren Legeari jarraiki.

9. oharra Efektuan adierazitako mugaeguna jaieguna denean, Kanbio-letren Legeari jarraiki, hurrengo lehen egun balioduna hartuko da mugaegun gisa.

Igorleak leihatilan ordaindutakoek berandutze-interesak sortuko dituzte mugaegunetik kobratzen diren egunera arte, erakunde kobratzaileak une bakoitzean kontu korronteko zorpeko zehatzetarako finkatuta duen interes-tasaren arabera kalkulatuta.

10. oharra 15 egun baino gutxiagoko epeko efektuak faktura independentean likidatuko dira, kostu guztiak kobrantza-zerbitzuari atxikitzat hartuta.